



**373/2020** Ebazpena, urriaren 13koa, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez agindu baita argitaratu behar direla Osakidetzaren web-orrian 10 Lehentasuneko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin betikoak (2011ko Kontratazio-zerrendetan indarrean daudenak), modalitate hauetan: A.1. lanbide-taldeko (Fakultatibo Mediko-teknikoak) lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Osakidetzako zuzendari nagusiak azaroaren 28an emandako 4235/2008 Ebazpenaren bidez (EHAA, 232 zk., 2008ko abenduaren 3), onartu egin ziren Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko 2008ko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak.

2008ko Enplegu Publikorako Eskaintzaren ondoriozko aldi baterako kontratazio-zerrendak Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko maiatzaren 9an emandako Erabakiaren arabera arautzen dira (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6).

Uztailaren 1eko 261/2020 Ebazpenaren bitartez argitaratu ziren Osakidetzaren web-orrian 10 lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak, modalitate hauetan: A.1 (Fakultatibo Mediko-teknikoak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Behin-behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,

## EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.**- Aldi baterako kontrataziorako 2011ko 10 lehentasuneko behin betiko zerrendak Osakidetzako web-orrian argitaratzeko agintzea, modalitate hauetan: A.1 (Fakultatibo Mediko-teknikoak) lanbide-taldeko lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Zerrenda horiek 2020ko urriaren 14tik aurrera egongo dira indarrean.

**Bigarrena.**- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 13a

  
Osakidetza  
María Pilar Uriarte Brizuela  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: María Pilar Uriarte Brizuela

**OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA**

